

## Calahonda murgildua.

Calahondan, egun batzuetan, oso gutxitan, harrotzen da itsasoa.

Txalupa asaldatuek olatuen oldarrari eusten diote... ia beti.

Baina itxurazko lasaitasun urdina ez da besteren lanaz errukitzen.

Batzuetan, bizitza inoren penetaz baliatzen da. Horrela, algak eta epifito onrogabeak hazten dira arrantza txalupa baten hondarren gainean.

Eta sareak eta tresneria egoten ziren tokian, baliteke orain arrain, molusku edota krustazeo batek babestokia izatea eta zuakerren artean izuti ibiltzea. Txaluparen koloreak eta organismoenak nahastu egiten dira. Gizakiaren eragina eta natura. Marinelek txalupak zaindu baino gehiago egiten dituzte. Apaindu eta nortasuna ematen diete. Bizidun izakiak dira eurentzat, egunen batean lehorrean edo itsas hondoan geratu arte. Denbora pasa ahala, kolore horiek txalupari arima eman zion bizitzaren lekuko izango dira. Bizitza, eta batzuetan heriotza itsasoan aurkitzen duten gizonen lekuko.

Horrela gertatzen da Calahondan, Andaluziako kostaldeko beste herri askotan gertatzen den legez, turismoak neurri handi batean arrantza ordezkatu duen leku honetan. XX. mendearen bigarren erditik aurrera Iberiar Penintsulako mediterranean kostaldeak jasotako eraldaketak eragin berezia izan zuen Granadako kostaldean; eta itsasondoari beste txalupa bat gehitzearen beldurrez, marinel askok esker txarreko lanbide krudel horretan ez jarraitzea erabaki zuen.

Itsasoak ur gardenak, labarrak eta kobazuloak eskaintzen ditu Calahondan, baita urpeko organismoen aniztasun handia ere. *Espirografa* hodi baten barruan bizi den har poliketo sesila da. Urak kulunkatzen dituen motots deigarriak animalia zakatzak dira. Mugitzean, urarekin gasak trukatzeko, hots: arnastu egiten du: karbono dioxidoa kanporatu eta oxigenoa hartu. Ez dago hil edo biziko prozesu horri ihes egiten dion organismorik. Gainera, mototsaren mugimenduaren bidez elikagaiak harrapatzen dituzte.

Kanpoan eduki beharrik ez baditu, hodiaren barruan gordetzen ditu zakatzak. Hor, hondoetan eta mugitu ezinik, harrapari asko dago bere zain; bere presentziaz zenbait eta animalia gutxiago ohartu, txikiagoa izango da arriskua. Hobe hodi gogor bat erakustea gorputz haragitsua baino.

Espiraleko zakatzak antolaera egokitze berezia da. Hodiak babesa ematen dio animalari, baina aldi berean arnasteko bidea murriztu. Mototsak gas truketarako azalerrak duen gainazala maximizatzen du.

Urpeko dantza ederra da animalia hauen jira-bira koloretsua.